

Hego Intxaurrendoko jaiak

# Zorionak Kaldero Jaun!

Hamar urte igaro dira Hego Intxaurrendoko jaiak lehen aldiz egin zirenetik. Urtemuga ospatzeko, egitarau biribila prestatu dute Intxaurdi elkarteok.

Xabier Etxabe  
**U**rtero legez, hamaika ekitaldi prestatu ditu Jai Batzordeak, tartean zenbait berrikuntza. Nabarmen-tzekoa da larunbatean, hilak 29, hilabete luzez lan eskerga egin eta gero, danborrada kalez kale ibiliko dela. Besteak beste, Intxaurrendoko Martxa joko dute danborradan parte hartuko duten lagunek. Roberto Otero Intxaurdi auzo elkar-

teko eta Jai Batzordeko kideak adierazi digenez, "lau urte behar izan dira danborrada sortzeko eta urtemuga berezi honen aitzakiarekin, azkenean, danborrada izango dugu". Danbor hotsez gain, txalaparta doinuak ere izango dira entzungai auzoan.

Larunbatean, herri kirolek tartea izango dute: Migeltxo Saralegi harrijasotzailea eta zenbait aizkolari ariko dira.

## Gorriti eta bere animaliak


Aurtengo jaietan, berriro ere, ikuskizun berezia izango dugu, Gorriti animalia koadrilarekin Intxaurrendora hurbilduko baita aurten ere. Gorritik erakustaldiak eskaini ohi ditu bere animaliekin. Jendea aho bete hortz geratu ohi da animaliek Gorritiren aginduei nola erantzuten dieten ikusita. Ramon Oterok esan digenez, "Gorriti bigarren urtez izango da auzoan. Aurreko erakustaldiak izugarritzko arrakasta izan zuen eta auzotarrok txunditurik gelditu ginen Gorriti oilarrarekin hizketan ikusi genuenean".

Haurrek, berriz, beste mota bateko animaliekin gozatzeko aukera izango dute; betizu gurpildunekin, hain zuzen ere. Jai Batzordeak antolatutako entzierroa sei betizurekin



egingo da. Jaiak amaitu bezain laster, betizuak beste zenbait auzotako jaietara eramango dituzte.

Aurten, urtero legez, hutsik egingo ez duena festen protagonista nagusia izango da, Kaldero Jauna, alegia. Ostiraletik aurrera, Oskola taldearen brusa soinean duela, alde batetik bestera ibiliko da urtemuga ospatuz, eta ahalik eta euri gutxien jasotzen ahaleginduko da. Izan ere, jOakina denez, jaien amieran Kaldero Jaunaren pertza euriz beteta bada, auzotarrek sutara botako dute. Kaldero Jaun gizagaixoak urtemuga honetan eguraldia lagun izango ahal du!



JOSE IGNACIO INCIARTE

Lorazantza zentroa

Barne eta kanpoko landareak eta lorazantza

ORDUTEGIA

Aste egunetan: 09.00etatik-13.00etara eta 15.00etatik-19.30etara  
 Larunbatean: 09.00etatik-13.00etara eta 16.30etatik-19.30etara  
 Igandetan: 10.00etatik-13etara

Otxoki pasealekua 68 • Tel.: (943) 27.01.82

TOPA Taberna

ONDO PASA JAIETAN

Sagastieder pasealekua 9  
 Tel.: 943 276628

Sagastieder pasealekua 16  
 Tel.: (943) 274800  
 DONOSTIA

Ondo pasa jaietan!

